

Ezpalak

JON TORNER

Mikel Asurmendi ARGIAko kazetariak *Komatxo Artean 1 eta 2* (Utriusque Vasconiae) elkarrizketa liburuak kaleratu ditu. Asurmendik Donostiako Herri Irratian gidatzen zuen *Komatxo Artean* saioan egindako elkarrizketa eta mahai-inguru literarioak dira liburuon ardatz. Lehenbizikoak 2000. urtetik 2006ra bitartean Asurmendik hainbat idazleri egindako elkarrizketak bildu ditu. Bigarrenak berriz, mahai-inguru literarioak. Mikel Asurmendi bere liburuez hizketan (bideoa): www.argia.com/bideoak.

Aritz Salamanca lezoarrak irabazi du Pasai Donibanen jokaturako Gipuzkoar Aurreku Txapelketa. Aritz Salamanca Donostiako Goizaldi eta Lezoko Murixka dantza taldeetako zuzendari eta dantzaria da. Iker Larunbe atarriarrik lortu du bigarren postua.

Esteban Barrena zumarragarrak Euskal Herriko Txistulari Elkartearen zilarrezko domina jasoko du ekainaren 17an. Barrenak Zumarragako Antzinako Ama txistulari taldearen sorreran parte hartu zuen eta garai hartatik geratzen den taldekide bakarra da.

Jon Mirandek idatzitako *Haur besoetakoa* sarean jarri du Susa argialetxeak, Klasikoan Gordailuan. Nobelarekin batera 1951 eta 1963 artean plazaratutako Miranderen ipuinak eta narrazio itzulpenak ere zintzilikatu dituzte Interneten. Helbidea: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/Mirandehaur.htm>.

Unai Fernandezek Bi Batean Diskak zigiluak sortu berri du diskoetxe handiek uzten dituzten hutsuneak betetzeko asmoz. Gasteizko zigiluak Euskal Herriko nahiz atzerriko musika taldeen lanak argitaratuko ditu autogestioa eta auto-finantzazioa erabilita.

Elkartasun Eguna Arrasaten

PORTALOIRA TOPAGUNEAK antolatuta, Elkartasun Eguna ospatuko da Arrasaten hilaren 9an. Goiz partean, umeentzako jolasak, koadrilen arteko herri kirolak eta herri bazkaria izango dira. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera berriz, Deba ibarreko hogeit musika talderen kontzertuak izango dira entzungai beste hainbat tabernatan. Gaueko 22:00etan, Orcresta Nacionalak –Elektrotuna ohiak– alaitutako kalejira amaitu ostean, Des-kontrol eta Never Surrender arrasatearren, Frontkick alemaniarren eta The Business britainiarren punk-oi kontzertua izango da Monterronen.

Getxoko Txotxongilo Eguna

EKAINAREN 15ETIK 17RA egingo da Getxoko Txotxongilo Egunaren bosgarren edizioa. Hiru egunez, hamaika emandaldi izango da Areetako Geltokiko plazan eta Erromoko Santa Eugeniakoan eta inguruko kaleetan. Ekitaldi garrantzitsuenak, Unima Euskal Herria gala, hilaren 16an egingo da Santa Eugenia plazako karpan, 21:00etatik aurrera. Euskal Herriko hamaiki txotxongilo taldek 10 minutu inguruko *sketch* laburrak eskainiko dituzte.



Informazio gehiago: www.txotxongilo.com.

[Iratxe Esnaolak](#) *El País*en: «Terapia hitza erabiltzean, ziurtzat ematen dugu gaixotasuna. Idaztea terapia izan daiteke, baina baita ihesbidea ere. Terapeutikoa da, barruko zikinei forma ematean, begien aurrera irteten direlako ikusi nahi ez diren gauzak. Eta ihesbidea da, sentimenduak fikzionaltzean, beste bati txertatzen dizkiozulako, sentimendu horiek pertsonaiarenak direla sinestearaino».

[Ricardo Ugartek](#) *Noticias de Gipuzkoan*: «Herrialde honetan, burdinarekin lan egin eta habeak eraikitzea dela serioa daukagu sartuta subkontziente kolektiboan. Kulturaren mundua beti izan da susmagarria. Gure obrari buruzko ikerketa handiak kanpoko autoreek egin dituzte. Hemen, kanpoan hainbat aitortpen jaso ostean ohartu ziren euskal artisten kalitateaz. Baina guztiz asumituta dugu».



Atxaspi hotela

Bittoria kalea 24 • 31770 LESAKA
Tel.: 948 637 536 • www.atxaspi.com

